



IRIZPEN ZK.: D22-002

IRIZPENA, UDALERRI BATEKO BIZILAGUN BATEK ETXEBIZITZA BATEN LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIAREN KOPIARA IRISPIDEA IZATEKO ESKATU IZANARI BURUZ.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2021eko abenduaren 20an Biasteriko Udaleko alkatearen idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkia goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

Idazkiak honako hau adierazten du:

«2021eko azaroaren 30ean, Biasteri udalerriko bizilagun batek Biasteriko Udalari eskatu zion “XXX partzelan XXXX(r)en izenean dagoen familia bakarreko etxebizitzaren lehen erabilerako lizentziaren kopia, Arkitektoen Elkargoak zigilatutako obra-amaierako ziurtagiriaren kopiarekin, ziurtagiri horrek lizentzia babesten baitu”, hori guztia mugakide den bizilagun bati buruz.

Agiri horiek ematea ukatzerik al dago, datu pertsonalen babesaren oinarri hartuta? Kasu honetan, zein gailentzen da, datuak babesteko eskubidea ala informazioa jasotzeko eskubidea?»

BIGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

Beraz, goiko araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daude indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 25az geroztik estatu kideetan zuzenean aplikatu behar den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona



fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra); eta bestea da abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean dagoena.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek 4.1 artikuluan honela definitzen du datu pertsonala: «*pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago*».

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 4.2 artikulua xedatzen duenez, berriz, datuen tratamendua da «*datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea*». Beraz, datu pertsonalen tratamendua egiten denez, datuak babesteari buruzko araudia bete beharko da.

Erregelamendu Orokorren 5. artikuluan datu pertsonalen tratamenduari buruzko printzipioak ezartzen dira. Printzipio horien arabera, datuen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da. Halaber, bildu ondoren, datuak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoetan aplikatu behar dira, eta ezin izango dira helburu horiekin bateragarria ez den moduan erabili. Horrez gain, datu pertsonalen tratamendua datuen minimizazioaren printzipioa bete behar du; hain zuzen ere, datu horiek egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izan beharko dute, lortu nahi den helburuarekin alderatuta eta, hori hala izateko, neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatuko dira.

II

Udalak egindako kontsultaren gaia da ea etxebizitza baten lehen erabilerako lizentziaren kopiarako irispidea ematerik dagoen, obra-amaierako ziurtagiriaren kopiarekin batera. Horri buruz, nabarmendu behar dugu Erregelamendu Orokorrek 6.1 artikuluan ezartzen duela zein kasutan dagoen legimitatuta datu pertsonalen tratamendua. Hona hemen kasu horiek:

- a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.



e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean.

Erregelamendu Orokorren 6.3 artikulua ezartzen duenez, «1. zenbakiko c) eta e) letretan adierazitako tratamenduaren oinarria ezarri beharko du Batasuneko zuzenbideak edo tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion estatu kideetako zuzenbideak».

Horren haritik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, 8. artikuluan (Datuen tratamendua, legeko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen egikaritzea direla-eta), honako hau ezartzen du:

«1. Datu pertsonalen tratamendua arduradunari legez eskatzen zaion betebeharrak batean oinarrituko bada –(EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.c) artikulua xedatutakoarekin bat–, nahitaez Europar Batasuneko zuzenbidearen arau batek edo lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du; arau horrek tratamenduaren baldintza orokorrak eta tratatuko diren datu motak zehaztu ahalko ditu, bai eta lege-betebeharraren ondorioz egin beharko diren lagapenak ere. Halaber, arau horrek tratamendurako baldintza bereziak ezarri ahalko ditu; besteak beste, segurtasunerako neurri osagarriak edo (EB) 2016/679 Erregelamenduaren IV. kapituluaren ezarritako beste batzuk hartu beharra».

Beraz, tratamendua zilegia den zehazteko, hirugarrenek lehen erabilerako lizentziatara irispidea izateko aplikatu behar den araubide juridikoa aztertu beharko da. Horri dagokionez, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 207.1 artikulua ezartzen duenez, hirigintzako lizentzia behar dute obren edo obra-zatien lehenengo erabilpenak eta obra horien aldaketak; baita eraikuntzaren erabilera aldatzeak ere, osorik edo zati batean. Horrez gainera, aplikatzeko den sektore-legeriak eskatutako baimenak ere lortu beharko dira. Horren haritik, lehen erabilerako lizentzia obren lizentzia eman zitzaizen obrak gerora kontrolatzeko eredu da. Lehen erabilerako lizentzien helburu zehatza, berriz, azkenean burutu den proiektua hirigintzako lizentzia jaso zuen proiektuarekin bat datorren egiaztatzea da.

Herritar batek lizentziara irispidea izatea zilegia den ala ez ebazteko, berriz, honako hau nabarmendu behar dugu: ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, zioen adierazpenaren IV. puntuan, I. tituluan jasotako printzipio orokorrak aipatzean, honako hau dio berariaz:

*«... Horien artean, jakina, hirigintzaren arloan administrazioak zein partikularrek burutzen duten jardun osoa interes publikoaren mende jartzea dago. Horretarako, auzi-bidean guztiz kontrolatuko da, **ekintza publikoaren bidez** (hori ere aitortua izan da), interes hori badagoela; lurzoria eraldatzeko eta erabiltzeko ekintza guztiek ingurumenarekiko eramangarriak izatea bermatuko da eta **herritarrek parte hartzea ere bermatuko da**».*



Bestalde, Zioen Adierazpeneko III. atalean legearen bidez lortu nahi diren helburuak aipatzen ditu, eta 6. puntuaren herritarren hartzea aipatzen du, eta helburuetako bat aipatzen du: «*Herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea...*».

Hori guztia ondo azalduta dago legearen azalpen zatian. Adibidez, 2.3 e) artikulua dioenez, hirigintza-arloko zeregin publiko hori garatzeko balio duten administrazio-ahaletako bat da herritarren partaidetza bermatu, bideratu eta sustatzea. Legearen 8. eta 9. artikuluek Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintzaren printzipio orokorren artean jasotzen dituzte herritarren parte-hartzearen printzipioa eta jendaurreko informazioaren printzipioa. Hona hemen:

«8. artikulua. Herritarren parte-hartzearen printzipioa

1. Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

2. Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:

a) Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiatzatu beharrik gabe.

b) Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.

c) Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

9. artikulua. Jendaurreko informazioaren printzipioa.

1. Indarrean dagoen plangintza osatzen duten agiri guztiak publikoak izango dira. Jendartean ezagutaraziak direla bermatzeko, eskumena duten herri-administrazioek, iragarpen eta argitalpen ofizialak egiteaz gain, eginbehar hauek izango dituzte:

a) Planak argitaratu egin beharko dituzte, argitalpen horiek eguneratuta eduki eta jendearen eskura jarri.

b) Planak sare telematikoaren guneren batean jarri beharko dituzte, oso-osorik eta edukia eguneraturik dutela. Libre izango da gune horretan sartzea.

c) Edozein pertsonak ondasun higiezin jakin batzuei aplikatzekoa zaien hirigintza-antolamenduaren ziurtagiriak edo kopia ziurtatuak eskatuz gero, eman egin beharko dizkiote».

Bi artikuluko horiek ikusita, argi ikusten da bertan jasotako printzipioak ezartzeko orduan, hirigintza jarduketan jendaurreko informazio publikoaren alde egin behar dela ahal den neurrian.

Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Lurzoruari buruzko Legearenaren 5. artikuluko c) eta f) apartatuek ere diote herritarrek honako eskubide hauek dituztela:

«c) Administrazio publikoek lurralde-antolamenduaz, hirigintza-antolamenduaz eta haien ingurumen-ebaluazioaz duten informaziora irispidea izatea, bai eta onetsitako xedapenen edo administrazio-egintzen kopia edo ziurtagiria eskuratzea ere, legeria arautzaileak ezarri bezala.



f) Akzio publikoa baliatzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak gordearazteko, bai eta zehaztapen horiek jasotzen dituzten tresnen ingurumen-ebaluaziorako prozeduretatik eta haiek exekutatzeko proiektuetatik sorturiko erabakiak ere, legeria arautzaileak ezarri bezala».

Hirigintzaren esparruan ekintza publikoaren indarra aldarrikatu denez, herritarrei ere interes legitimoa eta zuzena dutela aitortzen zaie legea betetzen dela kontrolatu ahal izateko, eta horixe gertatzen da obren lizentzia gainbegiratu nahi dutenean. Eta horren adibide da Madrileko Erkidegoko Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2004ko urtarrilaren 27ko Epaiak esan zuena: «... herritar orok baldi badu eskubidea hirigintza arloan legea betetzen dela gainbegiratzeko, horrek esan nahi du hirigintza arloan hartutako erabaki oro eskuratzeko eskubidea ere baduela, eta lokalak egokitzeko obren lizentziak ere multzo horretakoak dira. Azken finean, ekintza publikoa burutzeko, jakin egin behar da hirigintza jarduketak zertan diren, eta eskatzaileari ezin zaio hori ukatu bera ez delako izan jarduketaren sustatzailea edo ez delako jarduketan bertaratu ebazpena eman aurretik; izan ere, ekintza publikoa burutzeko epea ez baita bukatzen espedientea amaitzen denean edo obra bukatzen denean, hirigintza jarduketaren legezkoaren babes neurriak hartzeko ezarrita dauden epeak igaro ostean baizik...».

Beraz, printzipio horiek lehen erabilerako lizentziatarako ere aplikatu ahal direnez, esan behar da udalerrri bateko bizilagun batek lizentziara irispidea izatea ondo ezkontzen dela datuak babesteko oinarrizko eskubidearekin eta Erregelamendu Orokorraren 6.1) c) artikuluekin, eta bat datorrela ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoarekin.

III

Hirigintza-arloko ekintza publikoa arau bidez onartzen denez, herritar guztiek aurkaratu ahal dute administrazio publiko batek hirigintza-arloan egindako egintza bat, haren aurka errekurtsioa aurkeztea badago. Hala eta guztiz ere, ahalmen hori ez da mugagabea, gure sistema juridikoan muga arrunt bat dauka: ekintza publikoa egote hutsak ezin du legitimatu eskubide-abusu bat. Hala esan zuen Auzitegi Gorenak 2006ko uztailaren 26ko epaian (2393/2003 kasazio-errekurtsioa):

«HIRUGARRENA. Egia da hirigintza-arloko ekintza publikoa egiteko muga orokor edo arrunt batzuk daudela, gure ordenamendu juridikoak edozein eskubide egikaritzeko ezartzen dituen mugak, hain zuzen ere; funtsean, fede onez joka dadila eskatzea eta eskubide-abusua debekatzea. Baina, halaber, egia da mugak gainditu izana behar bezala egiaztatu behar dela, hori eskatzen baitzaio egikaritzen duen eskubidearen titularrari. Norbera eskubidearen titularra bada, eskubidea egikaritzeko babesa jaso behar du, eta egikaritzea eragozten duen oztopo guztiek ordenamendu juridikoan aurreikusita egon beharko dute, eta horrez gain egiaztatuta geratu».

Epai horrek berak eskubide-abusuaren muga horren edukia aditzera ematen digu: Auzitegi Gorenak hainbat aldiz errepikatu duen doktrinaren arabera, agerian geratu behar da argi eta garbi asmoa edo helburua beste inori kaltea egitea besterik ez dela, eta eragileak ez duela probetxurik aterako, kontuan hartuta «eskubidea erabiltzen duenak ez duela abusuz jokatzeko, eskubide hori esleitzeko lege-arauaren oinarri den irizpide finalista berberaren arabera».



Alde horretatik, kontuan hartu behar da oinarrizko eskubidea behar bezala bermatzeko funtsezko eginkizuna daukela datuen minimizazioaren printzipioak, Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasota dagoen horrek, zeinaren arabera datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Printzipio horren xedea da arrazionaltasun eta proportzionaltasun irizpideak txertatzea informazioa erabiltzean, datu-tratamenduaren helburua zein den ardatz hartuta.

Kasu honetan, udalak kontsulta egin du beste baten mugakide den herritar batek lehen erabilerako lizentziara eta Arkitektoen Elkargoak zigilatutako obra-amaierako ziurtagiriaren kopiara irispidea izateari buruz. Ezarrita dagoen lege-esparruaren arabera, udalak agiri horien edukira irispidea izateko baimena eman behar du, eta kasu bakoitzean zer helburu lortu nahi den, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua egin beharko du. Hala, pertsonen pribatutasunean bidezkoa ez den moduan esku sartzea eragotziko du, minimizazioaren printzipioarekin bat eginez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a